

IMMERSIONES



2013

DIRUAREN AURKAKOAK

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA


Gaueknak



1. AURKEZPENA

“Fikzioa aldatu beharra daukagu [diruari dagokionez], hori garrantzi handiko zerbait da. Garrantzitsua da eta gaur egungo artisten erronka handia izan daitekeela esango nuke. Gaur egungo artisten erantzukizuna fikzio berri bat proposatzea izango da.” Alain Badiouk, honakoan: Mendebaldea, Testigantzak, ikuskizunak eta utopia (1).

Alain Badiouk artistei botatako erronka onartu ondoren, Murgilketak, Euskadiko eta Nafarroako artisten biltzarrak, bere seigarren edizioaren **ideia gidari** moduan **diruaren aurkako** kontzeptua proposatu zuen.

Dirua zer den badakigu, edo nahikoa badakigula uste dugu behintzat. Dirua, lengoia bezalaxe, **ikur-sistema bat da**. Edo hobeto esanda, ikur bakarreko sistema bat. Dirua, hain zuzen ere, beste edozer gauzaren

lekuan jar daitekeena da. Baliokide orokor bat. Adierazle bat da eta adierazle hori zenbaki naturalen multzoarekin elkartzen badugu edozein **objektu edo zerbitzuren balioa eman ahal izango dugu**.

Bistakoa dirudi diruak, diru den heinean, ezagutzen dugun moduan edo azaldu diguten moduan, hainbat zorigaitz dakartzala uztarturik. **Zuhurkeria**, adibidez. Eta baita, **indarkeria** ere. Badiouk honakoa dio horri buruz: *“Diruagatik grinak gureganatu nahi ditugun gauza guztiengatik grina ordezkatzan du”*. Eta baita ere: *“Dirua da lehiakortasunaren indarkeria antolatzen duena. Betidanik, hala eta guztiz ere, nagusiki diruagatik hiltzen dugu.”* (Ibid.)


Dirua neurrigabe behar izatearen gogobetetasun partzialak sortu du **ikurraren** (diruaren) gaur egungo **inflazio handia sinbolizatutakoari**

dagokionez (ditugun ondasunak). Skidelskyen(2) arabera, gaur egun munduan hamar aldiz diru gehiago dago (700 bilioi dolar) zenbateko horri dagozkion ondasunak baino. Munduan eros daitekeen guztiak gaur egun 70 bilioi dolarreko gutxi gorabeherako prezioa soilik du (dolar bat gora, dolar bat behera).

Diruaren aurkakoaz, ordea, ezer ez dakigu edo ezer gutxi dakigu. Diruaren aurkako diruari Kristoren aurkako Kristori edo materiaren aurkako materiari dena izango litzateke. Bere ifrentzu zehatza. Kapitalaren zorigaitzoko gehiegikeriei muga jartzeko moduko edozer gauza izan daiteke diruaren aurkako. Benetako inolako aberastasunik irudikatzen ez duen diruaren aurka diruak irudikatzerik izango ez duen **benetako aberastasuna gailentzea izango litzateke komeni agian**.

Diruaren aurkakoarekin armaturik defenda gaitzeko neurri batean behintzat kapitalaren pilotzaile handiek eta txiekiek etengabe makurtzen gaituzten estortsioetik: sistemaren barruan lan egin behar izatea. Izan ere, definizio marxista klasikoaren arabera, kapitala hori bakarrik da, lana. Gutako edonoren lana, indartsuagoa edo azkarragoa den beste norbaitek metatuta. Eta, egia bada ere, batzuk diruagatik erakartzen dituztela sistemaren barruan lan egiteko, **gehien-goak txirotasun handiagoaren mehatxuagatik egiten du lan**, horretara bideratzen baikaitu inolako errukirik gabe lan-sistematik baztertzeak.

1. <http://vimeo.com/43699960>
2. <http://larazondesencantada.blogspot.com.es/2012/12/cuanto-es-suficiente-despues-de-lo.html>



DIRUAREN AURKAKOAK

2. MODALITATEAK

HOSPITALARIOS

Gasteizko Murgilketak 2013 egoitzan **leku** jakin **baten** jabe eginez eta **personalizatuz**, eta Murgilketak 2013 gaiarekin lotura duen proiektu pertsonala edo kolektiboa gune horretan hedatuz. Jardunaldi osoan zehar bertaratzen den jendea (hori edonolakoa delarik ere) zure proiektuan (nahi baduzu) hartuz, arreta eskainiz edo barruan sartuz. Erakundeak 5 artista edo eragile hautatuko ditu. Programa hau bereziki artista **gazteei** (30 urte artekoak) eta **Gasteizekin lotura dutela** egiaztatzen dutenei (Gasteizen ikasi, lan egin eta/edo bizitzea) zuzendutakoa da.

Ordainsaria: hautatutako eragile bakoitzak 400 euro eskuratuko ditu bere lanagatik ordainsari moduan. Beharrezko ekipamendua eta materialak erakundearen kontura izango dira (aurrekontu-mugen barruan).

TXOSTENAK

Diruaren aurkako **txosten bat** edo **artearen ikuspegitik** edo inguruko beste ikuspegi batzuetatik diruaren gaian eragina izango duen beste edozein proiektu artistiko aurkeztuta 2013ko abenduaren 14an Gasteizen izango den eragilean (artistak, ikertzaileak, bitartekariak eta ekintzaileak) biltzarrean. Biltzarrean aurkeztutako txostenetatik Erakundeak guztira **10 hautatuko ditu** hainbat irizpideren arabera: Murgilketak 2013 gaiarekin zerikusia izateagatik, interesagatik, garapen-mailagatik, proposamenaren koherentzia eta sakontasunagatik eta aurkezpenean euskarak izan duen erabileragatik. Eragile horiek hitz emango dute bere **txostenaren edo proiektuaren aurkezpena pertsonalki egingo dutela** abenduaren 14an Murgilketak 2013ren egoitzan Gasteizen.

Ordainsaria: hautatutako eragile bakoitzak 250 euro eskuratuko ditu ordainsari moduan lanagatik. Aurkezpen-baliabideak erakundearen kontura izango dira (aurrekontu-mugen barruan).

DOSIERREN ERAKUSKETA


Dosier bat bidalita Murgilketetako dosierren erakusketan parte hartzeko. Murgilketak 2013 gaiarekin zerikusia duen lana egin duten eragilean (sortzaileak, ikertzaileak, bitartekariak eta ekintzaileak) **gehienez 20 dossier** aukeratuko ditu erakundeak. Eragile horiek dosierak utzi egingo dituzte 2013ko abenduan Gasteizko **ARTIUMen jartzeko** eta ondoren erakunde horren zaintzapean dagoen Murgilketetako dosierren etenik gabeko artxiboan jartzeko.

Ordainsaria: hautatutako eragile bakoitzak 120 euro eskuratuko ditu or-

dainsari moduan bere dosierra mugarik gabeko epean uzteagatik Murgilketak artxiboan, horren helburu bakarria artisten lana ezagutaraztea izanik.

DIRURIK GABEKO MERKATUAREN LABORATEGIA

Gasteizko erdialdean jendearentzat **irekia izango den lonja batean** erakundeak gaituko duen dirurik gabeko merkatuaren laborategian norberaren izenean edo kolektiboan parte hartuta. **Artelanekin** edo beste era bateko salgaiekin edo zerbitzuekin **merkataritza alorrean** salerosketak egiteko aukera emango luke laborategiak, dirurik gabe eginak izateko edo **diruaren aurka gailentzearen** edo antzeko zerbaiten alde egiteko baldintzarekin.



3. IZAPIDEAK

Euskadin eta Nafarroan bizi diren, ikasten duten edo lan egiten duten eragile artistikoei eta kultura eta gizarte alorrekoiei (sortzaileak, ikertzaileak, bitartekariak eta ekintzaileak) zuzenduta dago Murgilketak 2013. Lotura hori ziurtatzen duten **agiriaren kopia bat** (NAN, erroldatze-ziurtagiria edo ikasle-txartela) aurkeztu beharko dute parte-hartzaile guztiek.

Honekin batera doan **izena emateko fitxa** behar bezala beteta bidali beharko du parte-hartzaile bakoitzak.

Parte hartu nahi baduzu:

HOSPITALARIOS

Bidaliezaguzu azaroaren 15a baino lehen zure **curriculum**a (3.000 karaktere hutsuneak barne; Word formatua), **testu bat dituzun arrazoiak eta proposatutako gaiarekin** zure proposamen artistikoak duen lotura azalduz (3.000 karaktere; Word formatua) eta zure lanaren bost irudi (JPG, RGB, 72 ppp) 2013inmersiones@gmail.com helbidera. Azaliezaguzu Abegitsuen gunean parte hartzeko behar dituzun ekipamendua eta materialak ere (erakundearen kontura).

TXOSTENAK

Bidaliezaguzu azaroaren 15a baino lehen zure **curriculum**a (gehienez 3.000 karaktere hutsuneak barne; Word formatua), **testu bat zure arrazoiak eta proposatutako gaiarekin** zure proiektuak edo lan artistikoak duen lotura azalduz (3.000 karaktere; Word formatua), aurkeztu behar duzun **txostenaren laburpen bat** (3.000 karaktere hutsuneak barne; Word formatua) eta zure lanaren bost irudi (JPG, RGB, 72 ppp) 2013inmersiones@gmail.com helbidera. Azaliezaguzu zure txostenaren aurkezpena egiteko behar duzun ekipamendua ere (erakundearen kontura).

DOSIERREN ERAKUSKETA

Bidaliezaguzu zure proiektuaren **dosier digital** azaroaren 15a baino lehen 2013inmersiones@gmail.com posta-helbidera. Artxiboen tamaina ez da 5 megatik gorakoa izango eta formatua PDF izango da. Edo bestela, bidaliezaguzu **idatzitako dosierra** posta bidez honako helbidera: Erakusmeta Kultur Elkarte, Labastida kalea, 52 – 01015 Gasteiz (gehieneko tamaina A3). Hautatzen ez diren idatzitako dosierak posta bidez itzuliko zaizkie dagozkien bidaltzaileei.

DIRURIK GABEKO MERKATUAREN LABORATEGIA

Bidaliezaguzu zure **proposamenaren deskribapen labur bat** (gehienez 1.000 karaktere hutsuneak barne; Word formatua), azaroaren 15a baino 2013inmersiones@gmail.com posta elektronikoaren helbidera.